

(2014ko urtarrila)

LAN DUINAREN ALDE


"Hogeta hamar urte beteko dodaz laster eta esentzia ostu egi deustela sentitzen dot. Lanagaz zerikusia dau. Uneren batean, lan egin eta bere buruaz arduratu daikena baino ezi daitekela gizon izan pentsatu neban. Ez daukat lan egonkorrik eta neure burua zaintzen be ez dot ikasi. Ezer ez eukitea da nire aktibo bakarra. Ez daukat hipotekarik, ez daukat seniderik nire kargura, ez daukat autorik, ez daukat pisutik, ez daukat lanik". NI NEU, ESTU ETA LARRI.

Lanaren Nazinoarteko Erakundeak (LANE/OIT), munduko lan egoerari buruzko 2013ko txostenean, langabeziaren kopuruak gora egiten diharduala dino eta 2015ean 208 milioi langabetu egongo dala. E.H.A.E.an, 174.700 lagun dagoz Lanbideren zerrendetan, herritarren %16,6a.

Lana izateko eskubide unibersalak -ospe handiz jasoten da Giza Eskubideen Adierazpen Unibersalean, Konstituzinoan, Estatutuan...- tupust egiten dau bortizki errealidadeagaz. Gaur, lana, ondasun urria da.

itaunketa eta alkarrizketarako gida

1. Pentsatu eta aitatu gaur egun lanaren, langabeziaren... inguruan bizi dozun edo bizi dan gertaeraren, egoeraren... bat. Zein jarrera dozu? Zeintzuk dira gertaera horreen arrazoi eta ondorioak? Ze eragin dabe personengan?
2. Ba ete dago enplegua, lana beste era batera antolatzeko biderik? Zein? Ezagutzen dozu esperientziaren bat?
3. Ze emon deikeoe kristinau mezuak, Eleizaren Doktrina Sozialak, kristinauek, lan munduari, "gizalegezko lana" egia bihurtzeko?





ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Gaudium et Spes (GS)

Eleiza gaurko munduan konstituzino pastoral.
Vatikanoko II. Kontzilioa.

1965

22. Berbera, Jainkoaren Semea, bere gizakundeaz, nolabait esateko, gizaki ororekin bat egin da. Giza eskuez lan egin zuen, giza adimenez pentsatu, giza bo-rondatez jokatu, giza bihotzez maitatu.


67. Are gehiago, Jainkoari eskainitako lanaren bidez, gizakiak Jesu Kris-toren berrerospen-lanarekin berarekin bat egiten duelakoan gaude, Hark Naza-reten bere eskuz lan eginik goi-mailara jaso baitzuen lana. Hortik dator gizaki ororentzat zintzoki lan egiteko eginbeharra eta baita lanerako eskubidea ere. Gi-zarteari dagokio, bertako egoera kontuan harturik, herritarrei lanerako aukerak aurkitu ahal izaten laguntzea. Azkenik lanak, gizakiari bera eta bere etxekoak bi-zitza material, sozial, kultural eta espiritualak duintasunez egiteko aukera emateko eran, ordaindua izan behar du, bakoitzaren egitekoa eta ekoizpena, eta baita en-presaren egoera eta guztien ona ere kontuan izanik.

Laborem Exercens (LE)

Giza lanari buruzko entziklika, 'Rerum Novarum' idazkiaren
90. urteurrenean. Joan Paulo II.a

1981

20. Eskubide guzti honeen gainean, beharginen aldetik eurok bermatu be-harraz gainera, beste eskubide bat sortzen da, alegia, alkartzeko eskubidea; hau da, lanbide desbardinetan jarduten daben enplegatuen bizi-interesen alde egitea helburutzat eukiko daben alkarte edo batasunak eratzea. Batasun honeek sindi-katu deitzen dira.





Caritas in Veritate (CV)


Osoko giza garapena karidadean eta egian gaiari buruzko entziklika. Benedikto XVI.a.

2009


63. Baina, zer adierazoten dau «gizalegezkoo» berbeak lanaz dihardugunean? Edozein gizartetan, gizon edo emakume guztien funtsezko duintasunaren adierazpena dan lana adierazoten dau: askatasunez aukeratutako lana; beharginak, gizonezko eta emakumezkoak, euren alkartearen garapenari eraginkortasunez lotuko dituan lana; bazterketa guztiak saihestuz, beharginak errespetatzea ekarriko dauan lana; familien beharrianak aseko dituan eta familiei, umeak, derrigorrez lan egin behar izatetik askatuta, eskolara bialtzeko aukerea emongo deutesen lana; beharginiei askatasunez antolatzeke eta euren ahotsa entzunarazoteko aukera emongo deutesen lana; arlo pertsonal, familiar eta espiritualean norbere sustraiakaz egokitasunez bat egiteke tarteke itzike dauan lana; erretiroa hartzen daben beharginiei biziaro duina ziurtatuko deutesen lana.

Tasa de paro en Euskadi

■ Tasa de paro



fuente: Eustat. * (datos hasta marzo)



Evangelii Gaudium (EG)

Ebanjelioaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa. Frantzisko.

2013

53. «Ez dozu inor hilko» aginduak giza biziaren balioa ziurtatzeko muga argia jarten dauan lez, «ez dozu bazterketa eta zuzentasunik eza dakarrezan ekonomiarik garatuko» aldarrikatatu behar dogu gaur egun. Ekonomia hori hiltzailea da. (...) Gaur dana sartzen da lehiakortasunaren eta indartsuenaren legearen jokoa eta hor ahaltsuenak iruntzi egiten dau makalena. Egoera honen ondorioz, gizatalde handiak kanporatuta eta baztertuta geratzen dira: lan barik, zerumuga barik, urteera barik. Gizakia bera kontsumo-ondasuntzat hartzen da, erabili eta gero bota egin daiteken gauzatzat. «Baztertzearen» kulturari hasiera emon deutesagu eta, gainera, suspertu egiten dogu dalako kultura hori. Ez da esplotazioa eta zapalketa bakarrik, zerbait barria baino: bazterketaren eraginez, gizarteko kide izatea bera be kolokan geratzen da, bertan ezin dalako behean, kanpoaldean edo aginte barik, egon, holakoetan gizartetik kanpo geratzen dalako. Baztertutak ez dira «esplotatutak», hondakinak, «soberakinak» baino.



OTOITZ EGITEKO

Mahastiko langileen parabola.

(Mateo 20,1-16)

JAUNGOIKOAK EZ DITU BERE TXIROAK AHAZTEN

- Eskubideak buruz esaten dituan, Konstituzinoaren eta demokraziaren jaiak ospatzen dituan baina ezelango babesik ez daukien anai-arreben aldeko alkartasunaz ezer ez dakien eta ezer ulertzen ez dauan herria, zer da, buru eta arrakasta bako herria baino?
- Barregura eragiten deuste azkenekoengandik urrun bizi diran bere jakintsu eta zuhurrek.
- Baina laster, laster, txiroen etxeak senideen etxe izango dira; eta egun haretan ebanjelioko hitzak entzungo dabez eta euren begiez ikusiko dabe amestutakoa:
- Poztu egingo dira Jaunagaz, poztu anai-arrebakaz; amaitu egingo dalako kontsumoaren tirania, amaitu egingo dalako indibidualismo burgesa.
- Langabetuek, etorkinek lan bila dihardue eta ez dago lanik; euren etxea hutsik dago, eta bankuak euren atzetik dabilz. Baina Jaungoikoak erantzun egiten deutse, eta guk, haren esku solidarioek, ez doguz babes barik itziko.
- Alkarri inotsen: "Jaunak bertan behera itzi nau, Jaunak ez nau gogoan hartzen". Ahaztu ete daike amak bere umea, agortzen ete jako inoiz bere sabeleko umeaganako maitasuna? Ba, berari ahaztuko balitxako, guk ezin dogu, hil ala bizikoa da guretzat, Jaungoikoaren seme-alaba gara!
- Gure Aitak ez deutse huts egiten Beragan uste dabenei. Berak defendatzen dau txiroen auzia eta lotsagarri izten ditu zapaltzaileak; Danek jakin behar dabe-eta Jaungoiko salbatzailea dogula, eta ez dituala zigor barik itziko txiroak txarto hartzen dabezanak.

FRANTZISKO AITA SANTUAREN OTOITZA CAGLIARIN 2013ko IRAILEAN

Jaungoiko Jauna, begiratu eiguazu.

Begiratu uri honi, isla honi.

Begiratu gure familiei.

Jauna, Zuk ez zenduan lan faltarik izan,
arrotza izan zinan, zorionekoa zinan.

Jauna, lana falta jaku.

Sasi-jainkoek duintasuna kendu gura deuskue.
Bidebako sistemek itxaropena kendu gura deuskue.

Jauna, ez gaizuz bakarrik itzi.

Lagundu eiguazu, alkarri lagundu deiogun;
ahaztu daigula norberekeria eta sentitu daigula bihotzean
"gu" garala, aurrera egin gura dauan herria.

Jesus Jauna, ez zenduan lan faltarik izan,
emoiguzu lana eta erakutsi eiguazu lanaren alde burrukatzen
eta bedeinkatu gaizuz.

Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

